ZUMARRAGAKO
UDALA
—
ZUMARRAGA
(GIPUZKOA)

Urretxuko udala

# GABONETAKO XXXII. IDAZLAN LEHIAKETA

# URRETXU eta ZUMARRAGA 2020



ZUMARRAGAKO
UDALA
—
ZUMARRAGA
(GIPUZKOA)

Urretxuko udala

# GABONETAKO XXXII. IDAZLAN LEHIAKETA

## URRETXU eta ZUMARRAGA 2020

## A. Taldea (L.H.ko 3. eta 4. mailakoa

**1. saria**: Aitor Núñez Rodríguez
**2. saria:** Teo Álvarez Artolazabal
**3. saria:** Malen Telleria Arostegi



AITOR NUÑEZ RODRIGUEZ

GABONETAKO XXII. IDAZLAN LEHIAKETA

# Olentzerok inoiz baino lan handiagoa zeukan urte hartan

Gabonak dira, egonezinik, ez dut ezerta bost minutu ere irauten. Iluntzean Olentzero etorriko da eta familian Gabon-gaua ospatuko dugu. Nire amatxo sukaldean dago, afaria prestatzen eta ni nire logelan oso urduri, leihotik begira. Euria gogor ari du. Eguraldi zital honekin, nola etorriko da Olentzero?

Gauean, afaldu ondoren, txirrina jotzen duenean jesus batean atea ireki eta eskatutako oparia jaso ohi dut. Aurten, ordea, eguraldi-giro hau dela eta Olentzeroren bisitarik gabe geratuko naizelakoan nago. Zer gerta ere, afaldu bezain laster, leihora noa ea Olentzero ikusten dudan. Boom! Izugarrizko trumoi hotsak ongietorria egin dit, tximistaren argiak gizon baten irudia erakusten didan unean. Sinestezina. Olentzero da eta daramatzan opari gustiak erori zaizkio lurrera. Zuzen bidean noa, laguntzeko asmoz, eta atariko atea irekitzerakoan pare-parean topatu dut.

Nire laguntza eskaintzen diot eta, bion artean, zakabanaturik opariak banatzen ditugu: bakoitza dagokion umeari, noski. Eluzer bat izan da. Benetako Olentzero ezagutuz gain, bere laguntzailea portzor

bihurtu naiz. Hori da gau magikoa hori!

TEO ALVAREZ ARTOLAZABAL

# OLENTZEROK INOIZ BAINO LAN HANDIAGOA IZAN ZUEN URTEA

Duela urte asko Olentzero mendialdean zegoen, oraindik hilabete batzuk falta ziren gabonak izateko. Olentzerok etxera bidean pentsatu zuen:

- Denbora libre asko dut; zergatik ez dut tramankulu bat egiten?

Hurrengo egunean katxarro tailer batera joan zen pieza batzuen bila.

Abenduak 24 zen, bukatu zuen bere tramankulu hura eta tramankulua zen izpi txikitzailea bat. Nahi gabe izpi txikitzaileak eman zion eta Olentzero txikitu egin zen. Denbora pila bat egon zen pentsatzen zer egin eta dagoeneko berriro umeei opariak banatzeko ordua zen. Ideia bat burura etorri zitzaion, berriro ere bere tamainara itzultzeko probatu zuen baina ez zuen funtzionatu. Gero beste ideia bat burura etorri zitzaion. Astoaren ahora salto egin eta kili-kili hasi zen egiten ezkerreko astoari. Bitartean ahots kordak mugitzen zizkion eta horrela astoak hitz egiten lortu zuen. Astoak esan zion Mari Domingiri:

- Olentzero naiz, nire tramankulu honekin txikitu egin naiz eta ezin ditut horrela opariak banatu. Opariak banatuko dituzu nire partez?
- Baietz! eta Mari Domingik banatu zituen opariak. Baina Mari Domingik esan zion:
- Zure laguntza ere beharko dut.
- Ados. Esan zion Olentzerok.

Horrela Olentzeroren laguntzaz Mari Domingik opariak banatu zituen. Hala ere, gelditzen zitzaion izpi handitzaile bat egitea eta lanean jardun ziren hurrengo gabonak arte. Azkenean lortu zuten tramankulu hura asmatzea eta Olentzero berriro ere bere tamaina errealera itzultzea.

MALEN TELLERIA AROSTEGUI

# OLENTZERO 2002

2002ko abenduaren17an Olentzero urte denetan bezala opariak sortzen ari zen, Ezkioko txabola batean . Harri bat ikutu eta ipotx txiki-txiki bat agertu zitzaion eta esan zion:
-Zure botere guztia kendu ditzut orain mendi batera joan behako zara.Harri bat ikutu eta zure botere guztia itzuliko dizut.

-Baina eman pista bat zein mendi den jakiteko ez?-esan zion Olentzerok

- “A” bokal ekin esango dizut mendiaren izena.” Aazkarra”!!!!! hori da mendieren izena-erantzun zion ipotxak.
Eta pentxatzen gelditu zen bere txabolan. Minutu batzuk pasatu ondoren ideia bat etorri zitzaion burura.” Aizkorri”! eta hurrengo egunean goizeko bostetan jaiki eta Zegama aldera joan zen.Mendia hasi eta piskabatera ipotxa agertu zitzaion eta esan zion:

-Ondo! Hau da mendia!! Baina ez dizut ain erraza jarriko 5 edo 6 Hesi egongo dira eta zuk pasa ahal izateko erronka batzuk egin beharko dituzu. Hau izango da lehenengoa, hesi hau pasatzeko hemendik dagoen giltza bat aurkitu eta hesia ireki.
Olentzero bilatzen asi zen eta harri baten atzean giltza aurkitu zuen hesia ireki eta mendia igotze segitu zuen.Bi hiru ordu pasata beste hesi bat aurkitu zuen Ipotxa agertu zitzaion eta esan zion:

-Beste erronka bat! Begiak itxita joan beharko zara hurrengo hesiraino eta hesia irekiko dizut.

-Jooooo!! Bueno gero botere guzti-guztiak bueltatu beharko dizkidazu eee!!-erantzun zion Olentzerok.

Begietan trapu bat jarri eta begiak bendatuta mendia  igotzen jarraitu zuen. zuhaitz eta pertsona batzuekin txokatuta baina, beste hesiraino iritsi zen eta ipotxak esan zion :

-Benga beste erronka bat! Lau hanketan joan behar zara hurrengo hesiraino.
Jendeak oso arraro begiratzen zion, lotxa askorekin baina hurrengo hesira iritxi zen eta ipotxak esan zion:

-Orain, ni zure solbardan joango naiz hurrengo hesiraino. Baina lasai ez dut ezer pixatzen.

Hurrengo hesia gurutzea zen eta atzo esan zion bezela harri bat ikutu eta botere guztia bueltatu zion.Gero ipotxak esan zion:

-Lan asko egin duzula ikusi dudanez, nere boterearekin zure txabolara eramango zaitut
Txabolara eraman eta gero gau eta goiz pasatu zuen opariak sortzen.
Hain nekatuta zegoen, 10 orduko siesta bat bota zu ela.Gabon egunean opari guztiak banatu zituen eta denak pozik geratu zire beraien opariekin

ZUMARRAGAKO
UDALA
—
ZUMARRAGA
(GIPUZKOA)

Urretxuko udala

# GABONETAKO XXXII. IDAZLAN LEHIAKETA

# URRETXU eta ZUMARRAGA 2020

## B. Taldea (L.H.ko 5. eta 6. mailakoak)

**1. saria:** Danel Sánchez Padrón
**2. saria:** Maialen Arratibel Urkiola
**3. saria:** Markel Hernández Alarcón



DANEL SANCHEZ PADRON

# Egoera zailetan ere, ez da itxaropena galdu behar.

Bazen behin Jesus izeneko baserritar bat. Jesusek, mundu guztian zehar bidaiatzen eman zituen gaztaroko urteak, eta pertsona ona izateko beharrezko ikasgaiak gordeta ekarri zituen bihotzean: umiltasuna, behar duenari laguntza eskaintzea, fedea eta itxaropena ez galtzen ... Jesus, lainoak ikutzen zituen mendi altu batean bizi zen, berak egindako egurrezko etxetxo batean, hain zuzen. Lainoek, hizkuntza propioa dute, eta beraien kolore eta norabide ezberdinak ikusita, Jesusek edonon gertatzen zen guztia jakiten zuen. Azken hilabeetan gizakien bihotzak iluntzen ari zen notizia batek ez zion lo egiten uzten. Birus arriskutsu bat munduaren jabe egiten ari zen, gaixotasuna, sufrimendua, beldurra... txoko guztietan uzten zuelarik. Agintariek birusari aurre egiteko era guztietako debeku, betebehar ... ezartzen ari zen. Bizitza heriotz bihurtzen zijoan piskanaka.

Gabonak iristear zeuden, eta bere lagun mina zen Olentzerori bisita egitera abiatu zen gure baserritarra.

Ohean sartuta aurkitu zuen Olentzero. Triste. Guztiz etsita.

-Nola demontre banatuko ditut aurten opariak? Jendea beldurtua dago eta beharbada ez dute ni hurbiltzea nahi izango. Birusa kutsatuko diedala pentsatuko dute... - eta Olentzeroaren begiak malko erraldoiez betetzen ziren.

Jesus, lainoek emandako informazio guztia aztertzen hasi zen. Bapatean, irribar egin eta abiadura bizian Olentzeron etxetik atera zen. Ez zegoen denbora galtzerik.

Eguzkiak eguna agurtu eta ilargia gauari ongietorria ematen ari zen momentuan, Jesus Olentzeroren etxean sartu zen:

–Beldurrrik gabe jaitsi ahalko duzu herri guztietara. Ume bakar ere ez da oparirik gabe geldituko. Tori, honek lagunduko zaitu. Olentzerok burua izara azpitik atera eta Jesusek eskuetan, maskarila bat zuela ikusi zuen. Baina maskarila hori berezia zen: lainoz egindа zegoen!!!!

–Jesus, adiskide. Nola eskertuko dizut egiten ari zaren guzti hau?

–Olantzero, Egoera zailetan ere, ez da itxaropena galdu behar. Eta orain, hasi lanean. Haur askoren ilusioa piztuta mantendu behar duzu. Magia bizirik egon dadila beti.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Olentzeron oparietan.

MAIALEN ARRATIBEL URKIOLA

# EGOERA ZAILENETAN ERE, EZ DA ITXAROPENA GALDU BEHAR

Udazkenaren itzala gero eta handiagoa zen egun haietan, Euskal Herriko mendi misteriotsu batean, Olentzero, urtero bezala, bere txabola zaharrean zegoen berarentzat izango ziren gabonetako lehenengo gutunen esperoan. Egurrezko xafla zartatuez eginiko txabola hartan, egunak aurrera joan ahala, ez zen gutunik iristen eta egonezinaren inurriek jaten zizkioten barrenak Olentzerori. Urteko egunik garrantzitsuenak iristear zeuden.

Goiz batean, urduritasunaren itolarriak esnatu zuen Olentzero. Ezin zuen horrela jarraitu eta umeak zertan zebiltzan begiratzea erabaki zuen.

-Olentzerotaz nik paso- entzun zion esaten makarra itxura zuen neska bati.

-Baita nik ere, gizon zaharkitu bat besterik ez da- bere ondoan zegoen tatuajedun mutil batek.

Olentzerori mila galderako uholdea erori zitzaion gainera:"Horren zaharkitua al naiz?""Gazteek ez al naute maite?""Sare sozialetan sartzen banaiz maiteko al naute?".

Ezin zuen entzundakoa sinetsi. Bere besaulkian eseri eta tristurak harrapatu zuen Olentzero. Begiak lausotu eta bihotzaren beltztasunean erorita ezin zuen jostailurik prestatzen jarraitu.

Galtzagorriek egoera ikusirik Olentzerori esan zioten:

- Eta zergatik ez zara "influencer" horietako batean bihurtzen? Zure kanalari "Olentzero`s Live" izena jar diezaiokezu eta Tik Tokeko dantzak egin ditzakezu.

-Ba ez da batere ideia txarra! Denek maite dituzte zuk esandako horiek- erantzun zion Olentzerok.

Olentzerok, besaulkitik altxa, bere mugikorra hartu eta Tik Tok aplikazioa instalatu zuen. Segituan, mota eta adin guztietako jendea ikusi zuen: batzuk dantzan, besteak istorioak kontatzen, esperimentuak egiten... Eta harrigarriena!!! Horrelako gauzak egiteagatik jarraitzaile mordoa zuten!!! Olentzerori erraza iruditu zitzaion; besteek egiten zutena errepikatzea besterik ez zen.

Ordu batzuk beranduago, Olentzeroren dantzen bideoak zeuden Tik Tok-eko txoko guztietan. Gazteen artean ikaragarrizko zalaparta sortu zen, haiek barreak!!!
Orduan, Mari Domingi sartu zen txabolan, trumoiak bezain zaratatsuak ziren garrasiak botaz:
-Baina zer demontre egin duzu Olentzero? Zure bideo pila jasotzen ari naiz!
-Mundialak dira ezta? - berriz Olentzerok.
-Barregarri gelditu zara! Ez al zara konturatu?
Olentzerok pentsakor esan zuen:
-Garrantzitsua izan nahi nuen... baina zelako iskanbila sortu dudan! Gainera, bideoak grabatu arren, inork ez dit gutunik bidali...ez naute maite...
Malko lodiz betetako erreka luzeak marraztu ziren Olentzeroren aurpegian. Bakarrik sentitzen zen, ilusioa galdu ondorengo ezerezaren zulotik irten ezinik.
-Hau konpondu beharra daukagu-esan zion Mari Domingik.
-Aurten, Euskal Herriko ume bakoitzari sekula izan duen jostailurik bereziena oparituko diogu.-erantzun zion Olentzerok.
Bizkor batean, milaka eta milaka jostailu prestatzen hasi ziren. Baina jostailu bakoitzean mezu magiko bat idatzi zuten:

*"Izan zaitez zaren bezalakoa"*

Abenduaren 24an, Olentzerok, jostailuak banatzen ari zela, tatuajedun mutil bat bere oparia irekitzen ikusi zuen. Haserako harriduraren ostean, Olentzerori bihotz barrenetik eskainitako irribarrerik goxoena luzatu zion eskuarekin bere tatuaia estaltzen zuen bitartean.

Urte hartan Olentzerok inoiz baino opari ederragoa egin zien Euskal Herriko umeei; besteak bezalakoa izaten saiatuz gero norberaren izaera gartzelaratzen dugula eta garrantzitsuena, norberak barruan duen dizdira munduan zabaltzea dela ikasi zuten.

MARKEL HERNANDEZ ALARCÓN

GABONETAKO XXII. IDAZLAN LEHIAKETA

# MIKEL, EZ GALDU ITXAROPENA

Behin batean, txirrindulari bat zegoen, Mikel deitzen zen. 16 urte zituen, begi txikiak eta urdinak zituen, mutiko argala zen. Bere janari gustukoena arraina zen. Arratsaldero bizikletan joaten zen, bere kirol gustokoena txirrindularitza baitzen.

Igande batean, Mikel, bizikletarekin mendira entrenatzera joan zen, lasterketa bat zuelako. Kilometro asko egin zituen, baina bere buruari esan zion:

—Ez da nahikoa! — Entrenatzen jarraitu zuen.

Bi ordu pasa ziren. Bapatean bere bizikletaren frenoak izorratu ziren. Aldapabehera joan zen, aldaparen erdian bihurgune bat zegoen, ezin izan zuen gelditu. Orduan, istripua eduki zuen, sasietara erori. Mikelek pentsatu zuen:

—Inork ez nau lagunduko hemendik ateratzen, bakarrik nago, eta sasien artean ez naute ikusiko. — Mikel minduta zegoen, bere gorputzeko atal gehienak odolez beteta zeuzkan.

Denbora pasatzen zen neurrian, Mikel itxaropena galtzen hasi zen, minduta, pentsatzen lasterketa erin irango zuela egin. Ordu asko pasa ziren, gero eta hotz gehiago zeukan.

Bapatean, urrutitik argi bat gerturatzen ikusi zuen. Mikelek oihu egin zuen;

— Lagundu, hemen nago, lagundu... — Auto bat gelditu zen. Autoaren barrutik, baserritar bat atera zen. Mikelen garrasiak entzun zituen. Baserritarrak, Mikel eskutik helduta, sasietatik atera eta baserritarraren autora igo zen.

Baserrira eraman zuen. Baserritarrak, Mikeli zauriak garbitu eta sendatu zizkion, arropa garbia jarri zion. Tximiniaren ondoan, Mikelek beroa hartu zuen. Baserritarrari kontatu zion gertatutakoa, eta dena ulertu zuen

Mikel jatera geratu zen. Jan eta gero, eskerrak eman zizkion baserritarrari. Mikel, triste zegoen bere bizikleta apurtuta zegoelako. Bizikletarik gabe erin zuen lasterketa egin. Baserritarrak bere bizikleta eman zion:

— Egoera zailetan ere, ez da itxaropena galdu behar. — Esan zion baserritarrak. Mikelek itxaropena berreskuratu zuen.

Azkenik, bere herrira bueltatu zen. Lasterketan, bigarren postuan geratu zen, zilarrezko domina eman zioten. Baina urrezko lagun bat lortu zuen: baserritarra.